BBUPREN DOKUMENTAZIOA EDOTA PERTSONAK GARRAIATZEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO ADMINISTRAZIO-BALDINTZA BEREZIEN PLEGUAREN KARATULA. ESPEDIENTEAREN ZK.: 3335.

Kontratua erregulazio harmonizatuari loturik dago	☐BAI ☒EZ
Espedientearen izapidea	☒Ohikoa, ☐Premiazkoa, ☐ Larrialdia, ☐Aurreratua
Mota	☒ Irekia ☐ Irekia eta sinplifikatua (SPKLren 159.1. art.) ☐ Irekia eta oso sinplifikatua (SPKLren 159.6. art.)

A.- BOTERE ADJUDIKATZAILEA	
1.- Botere adjudikatzailea:	Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia/ Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
2.- Kontratazio-organoa:	☐ Zuzendaritza Batzordea ☐ Presidentea ☒ Gerentea
3.- Kontratuaren arduraduna:	María Sedano Ugarte
4.- Kontratazio Zuzendariordetzaren harremanetarako datuak:	contratacion@consorciodeaguas.eus Kontsulta administratiboak eta teknikoak: telefono-zk.: 94 4873100
5.- Kontratatzailearen profila:	www.consorciodeaguas.eus www.contratacion.euskadi.eus

B.- KONTRATUAREN XEDEA

1.- Kontratuaren xedea: BBUPREN DOKUMENTAZIOA EDOTA PERTSONAK GARRAIATZEKO ZERBITZUA.

2.- Bete beharreko premiak: Partzuergoak hainbat lantoki garrantzitsu ditu Bizkaian; besteak beste, Albia eraikineko egoitza nagusia (Bilbo), Beteluriko EUT (Arrigorriaga), Galindoko HUA (Sestao) eta 2022ko urtarrilaren 1ean Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoan sartu ziren Busturialdeko lantokiak. Eremu horretan barne-posta banatzeko, Gernikako bulego nagusiak hartzen dira erreferentziatzat. Lantoki horien artean banatu behar diren dokumentazioak eta pakete txikiek justifikatzen dute gastuaren beharra. Horregatik, egoitza horien artean barne-posta banatzeko ibilbide bat ezartzea erabaki da, eta beste egoitza batzuetara ere zabaldu ahal izango da, dokumentazioaren eta pakete txikien joan-etorriak hala eskatzen badu. Era berean, langileak garraiatzeko zerbitzu bat ezartzea erabaki da. Zerbitzu horrek, barne-postarako ezarritako ordutegiak eta ibilbideak baliatuta, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren lantokien eta egoitzen artean bilerak, prestakuntza edo bestelako arrazoiak direla-eta langileak garraiatzeko sor daitezkeen premiak bete ahal izango ditu. Halaber, baimendutako pertsonak edota dokumentazioa noizean behin garraiatuko ditu, barne-postaren ordutegitik kanpo eta zerbitzuaren beharrek eskatzen dituzten helmugetara.

3.- Lotetan banatzea: ☐ Bai ☒ Ez

Lotetan banatu ez izanaren justifikazioa: Dokumentazioaren edota baimendutako langileen noizbehinkako garraioa posta-zerbitzu arruntaren barne hasi edo amaitu daiteke, eta ezarritako ordutegietatik kanpo jarraitu. Hala denean, lehentasuna emango zaio zerbitzuaren bi modalitateak —dokumentazioa edota langileak posta garraiatzeko ordutegian garraiatzea eta dokumentazioa edota baimendutako langileak noizbehinka beste ordutegi batzuetan garraiatzea— elkarren osagarri izateari.

B.- KONTRATUAREN XEDEA
4.- CPV: - CPV kodea:60120000-5 - Deskribapena: Taxi-zerbitzuak
5.- Aldagaiak edo alternatibak onartzea: ☐ BAI ☒ EZ Onartzeko baldintzak eta aldatu edo aukeratu daitezkeen elementuak:
6.- Izaera juridikoa ☒Administratiboa ☐ Pribatua

C.- KONTRATUAREN PREZIOA	
1.- Lizitazio-aurrekontua (BEZik gabe)	**BERROGEITA HAMALAU MILA ZORTZIEHUN ETA HOGEITA HIRU EURO ETA HIRUROGEITA BEDERATZI ZENTIMO (54.823,69 €), BEZIK GABE**
2.- Kontratuaren balio zenbatetsia: 109.647,38 euro Loteak: ☐ BAI ☒ EZ	
3.- Prezioa zehazteko sistema: ☐ Honenbesteko prezioa ☒ Prezio unitarioak	
4.- Urteko kopuruak eta aurrekontu-kontsignazioa: Hauek dira kontratuaren aurrekontuaren urteko zenbatekoak eta kontratuaren gastuaren aurrekontu-aplikazioa: - 2026. URTEA: PARTIDA: 920.03-226.99 10.213,73 € - 2027. URTEA: PARTIDA: 920.03-226.99 44.609,96 €	
5.- Prezioak berrikustea: ☐ BAI ☒ EZ	
6.- Kanpoko funtsekin finantzatzea: ☐BAI ☒EZ	
7.- Ordaintzeko modua: Arrunta, hileko ziurtagiri bidez	
8.- Ordainketak kontura: Ez da aplikatu behar	

D.- KONTRATUAREN EPEA
1.-Iraupen osoa: URTE BAT (1)
2.- Epe partzialak. ☐ BAI ☒ EZ
3.- Luzapena ☒ BAI ☐ EZ; GEHIENEZ LUZAPEN BAT (1), URTEBETEKOA (1).
4.- Berme-epea: Ez da aplikatu behar
5.-Kontratua betetzeko tokia: Preskripzio tekniko partikularren pleguko ibilbideak
6.- Partzialki jaso daitezkeen lanak: ☐ BAI ☒ EZ.

D.- KONTRATUAREN EPEA

E.- BERMEAK		
☒Behin betiko bermea:	% 5	Zenbatekoa: Adjudikazioa
☐ Berme osagarria:	Zenbatekoa:	

F.- KAUDIMEN EKONOMIKOA EDO FINANTZARIOA
Urteko negozio-bolumena: amaitutako azken hiru urteetako negozio-bolumen handieneko urteari dagokio, eta kontratuaren urteko batez besteko kuota bezainbeste izan beharko da gutxienez behin: (54.823,69 €).

G.- KAUDIMEN TEKNIKOA ETA PROFESIONALA

1. KAUDIMEN TEKNIKOA

Kontratuaren xede diren zerbitzu edo lanen izaera bera edo antzekoa duten eta gehienez azken hiru urteetan egindakoak diren lan edo zerbitzu nagusien zerrenda, hauek zehaztuta: zenbatekoa, data eta hartzaile publiko edo pribatua.

Behar bezala gauzatu izanaren ziurtagirien bidez egiaztatuko da. Gutxieneko baldintza izango da gauzatze handieneko urtean metatutako urteko zenbatekoa kontratuaren urteko batez besteko zenbatekoaren % 70ekoa edo handiagoa izatea.

2. BALIABIDEEN ATXIKIPENA

Zerbitzua gauzatzeko erabiliko den garraiobidea identifikatzen duen adierazpena. Kontratazio-organoaren mendeko zerbitzuek eskatzen dutenean, dagozkion egiaztagiriak erantsi beharko zaizkio.

Horretarako, enpresa lizitatzaileak zehaztu beharko du zenbat bidaiari garraiatzeko tokia duen ibilgailuak. Gutxienez 5 eserleku izan beharko ditu, gidariarena barne.

Prestazioa gauzatzeko ardura duten langileen izenak eta lanbide-kualifikazioa (SPKLren 76.1 art.). Lizitatzaileek gutxienez bi pertsona jarriko dituzte kontraturako, zerbitzua betetzeko.

Pertsona horiek, nolanahi ere, gutxienez 5 urteko esperientzia egiaztatua izan beharko dute pertsonak garraiatzeko zerbitzu profesionalak ematen. Esperientzia hori lan-kontratuen bidez edo bidaiarien garraioaren, taxi-zerbitzuaren edo gidaridun ibilgailuen alokairuaren sektorean autonomo gisa alta emanda egotearen ziurtagirien bidez egiaztatu ahal izango da. Eskatutako gutxieneko esperientzia betetzen dela modu frogagarrian egiaztatzen duen beste edozein dokumentu baliozko ere erabili ahal izango da. Egiaztagiriak, hala badagokio, kontratazio-organoaren mendeko zerbitzuek eskatzen dituztenean erantsi beharko dira.

Zerbitzua gauzatzeko ardura duen langilea arrazoi justifikatu batengatik ordezten bada, ordezkoak ere eskatutako gutxieneko esperientzia izan beharko du.

☒ Enpresa sortu berrien kaudimen teknikoa:

Kaudimen tekniko eta profesionalari dagokienez eskatzen den esperientzia ez da kontuan hartuko kasu horietarako. Bai, ordea, gainerako eskakizunak.

ENPRESA-SAILKAPENA

Eskatutako kaudimenaren ordez, sailkapen hau egin ahal izango da:

ENPRESA-SAILKAPENA ☒ Bai, Hautazkoa ☐ Ez

Eskatzen diren taldea, azpitaldea eta kategoria: R. Taldea 01 Azpitaldea 1 Kategoria

H.- LIZITATZAILEEK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTUAK

1.-1. gutun-azala: Erantzukizunpeko adierazpena.
2.-2. gutun-azala: Balio-judizioen araberako irizpideen dokumentuak.

H.- LIZITATZAILEEK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTUAK

3.- 3. gutun-azala: Automatikoki kuantifikatzen diren irizpideen dokumentuak.

BALIO-JUDIZIOEN MENPEKO IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTUAK

- Memoria teknikoa eta gauzatze-metodologia.
- Kontraturako jarritako bitarteko teknikoak.
- Ingurumen-irizpideak.

Lizitatzaileek honako hauek aurkeztu beharko dituzte eskaintzan:

Enpresa-memoria, eman beharreko zerbitzuaren lan-plana eta metodologia jasoko dituena, memoria teknikoari eta gauzatze-metodologiari buruzko puntuan ezarritakoaren arabera.

Gehienez 20 orrialde izango ditu, azala eta aurkibidea zenbatu gabe. Dokumentuaren formatuak nahitaez bete beharko ditu eskakizun hauek: DIN A4 orrialde-tamaina, orientazio bertikala, 11 puntuko Arial letra-tipoa eta 1,5 lerroko lerroartea. Gehieneko luzera gaindituz gero, muga horretatik gorako orrialdeak ez dira ebaluatuko.

Kontraturako jarriko diren ibilgailuei buruzko erantzukizunpeko adierazpena: modeloa, matrikula, eserleku-kopurua eta, hala badagokio, dagozkien ingurumen-bereizgarrien egiaztagiriak. Halaber, ingurumena babesteko neurriak deskribatzen dituen erantzukizunpeko adierazpena.

Erantzukizunpeko adierazpena, gutxieneko kopuruaz gain kontraturako jarritako pertsonak adierazteko eta guztiek gidabaimeneko puntu guztiak dituztela egiaztatzeko.

Datuen babesari buruzko I. eranskineko klausulak.

AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEN DIREN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

Eskaintza ekonomikoa. Lizitatzaileak edo bere ordezkariak sinatu beharko du eta zehatz-mehatz idatzita egon beharko da I. eranskineko ereduari jarraikiz. Eskainitako prezioan zerga guztiak barne egon beharko dira, BEZa izan ezik.

Eskaintza ekonomikoa honela osatuko da:

a) Prezioen zerrenda.

Ibilbide-zerbitzuaren parametro orokorrak (aurreikusitako zerbitzu-kopurua eta zerbitzu bakoitzeko aleko prezioa), eskaintza kalkulatzeko erabili beharko direnak, merkatuko prezioen arabera kalkulatuta daude.

Gehieneko aleko prezioak gastu hauek hartuko ditu barne, besteak beste:

- Garraio-azpiegiturak erabiltzeak eragindako gastuak.
- Ibilgailuek sortzen dituzten gastuak: mantentze-lanak, ordezko piezak, tasak, erregaiak eta abar.
- Lanak egiteko behar diren materialak, erremintak eta tresnak.
- Kontratuaren xede diren lanak egiteko eta gizarte-arloko legeriak ezartzen dituen betebehar guztiak nahiz kontratutik eratorritako gainerakoak betetzeko behar den beste edozein gastu.
- Eguneroko ibilbidearen kasuan, gehienez ordubeteko itxaronaldia zentro bakoitzean. Atal honetan, zerbitzu bakoitzerako urtebeteko aldirako egindako zenbatespenak deskribatu dira, baita erakunde honek ezarritako gehieneko prezioa ere. Noizbehinkako ibilbidearen kasuan, zenbatespen horiek eskaintza ekonomikoa haztatzeko baino ez dira egiten, aldakortasuna dela eta.

Zenbatetsitako bolumen horiek ez dute adjudikaziodunarekiko inolako zerbitzu-konpromisorik sortzen. Beraz, benetan egindako zerbitzuen arabera fakturatuko da, eskaintza irabazlean zerbitzu bakoitzerako ezarritako prezioan.

AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEN DIREN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

Eskaintza ekonomikoaren ereduak egitura hau izango du:

	PRECIO UNITARIO máximo por km (sin IVA)	PRECIO UNITARIO Máximo por hora de espera (sin IVA)	PRECIO UNITARIO máximo por servicio (sin IVA)	PONDERACION (servicios/ kms/ horas) (12 meses)	PRECIO TOTAL (sin IVA)
RUTA fijada en el anexo I:			119,54 €/servicio	316 servicios	37.774,64 €
RUTAS OCASIONALES	1,10 €/km			10.000 km	11.000 €
		27,50 €/hora		220 horas	6.050 €
					54.824,64 €

	PRECIO UNITARIO ofertado (sin IVA)	PRECIO UNITARIO Ofertado por hora de espera (sin IVA)	PRECIO UNITARIO Ofertado por servicio (sin IVA)	PONDERACIÓN (servicios/ kms/ horas) (12 meses)	PRECIO TOTAL (sin IVA)
RUTA fijada en el anexo I:			X €/servicio	316 servicios	316x €
RUTAS OCASIONALES	Y €/km			10.000 km	10000y €
		Z €/hora		220 horas	220z€
					316x+10000y+220z

Ondorioz, lizitatzaileek honako aleko prezio hauek eskaini beharko dituzte:

- Zerbitzu bakoitzeko prezioa, plegu teknikoaren 1. eranskinean jasotako ibilbideetarako.
- Kilometroko eta itxaron-orduko prezioa, noizbehinkako ibilbideetarako.

I.- ESKAINTZAK EGITEKO LEKUA ETA EPEA

1.- Eskaintzak aurkezteko epea: Kontratatzailearen profilean adierazitakoa
2.- Eskaintzak aurkezteko lekua (bakarrik administrazio-klausula partikularren pleguaren 13. klausulan xedatutakoa ez bada):
3.- Eskaintzak elektronikoki aurkeztea ☒ BAI ☐ EZ
Eskaintza elektronikoak aurkezteko plataforma elektronikoaren helbidea:
https://contratacion.consorciodeaguas.eus/site/3

J.- KONTRATAZIO-MAHAIA EDO ADITUEN BATZORDEA

Kontratazio-mahaia

Presidentea:
Ekaitz Mentxaka Corral jauna.

Mahaikideak:
Mikel Magunazelaia Pinaga jauna.
Xabier Orue Moro jauna.
Itziar Zarate Urrutia andrea.
Gerardo Latorre Pedret jauna.
Jose Manuel Pereda Renobales jauna.

Idazkaria:
Gerardo Latorre Pedret jauna.

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

1.- Adjudikazio-irizpideak:

Hauek dira baloratzeko alderdi gisa lehiaketa adjudikatzeko oinarritzat erabiliko diren irizpideak:

AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEN DIREN IRIZPIDEAK: 50 PUNTU

Irizpide horri dagokionez, gehienez 50 puntu lor daitezke.

Eskaintza ekonomikoak eskaintza bakoitzaren baja-ehunekoarekiko (Bi) proportzioan baloratuko dira honela:

Bmax ..... 50 puntu
(Bmax + BM) / 2 ..... 48 puntu
BM..... 47 puntu
0,8 x BM ..... 46 puntu
0,6 x BM ..... 44 puntu
Lizitazio-aurrekontua ..... 0 puntu

Non:

- Bi: Eskaintzaren baja-ehunekoa, hau da, lizitazio-aurrekontuaren eta eskaintzaren zenbatekoaren arteko diferentziaren emaitza lizitazio-aurrekontuaren artean zatituta eta ehunekotan adierazita.
- Bmax: Gehieneko baja-ehunekoa, eskaintza ekonomikoenari dagokiona.
- BM: Batez besteko baja-ehunekoa. Hau da, lizitatzaile bakoitzaren baja-ehunekoen batezbesteko aritmetikoaren emaitza.

Onartutako gainerako eskaintzen puntuazioa eskuratzeko linealki interpolatuko da aurretik azaldu den puntuen banaketa.
Modu horretan, Bi bakoitzari esleitutako Pi puntuazioa honi dagokiona da:

Baldin eta $0 < Bi <= 0,6 \times BM$

$$Pi = \frac{Bi}{0,6 \times BM} \times 44$$

Baldin eta $0,6 \times BM < Bi <= 0,8 \times BM$

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

$$Pi = 44 + \frac{(Bi - 0{,}6 \times BM)}{0{,}2 \times BM} \times 2$$

Baldin eta $0{,}8 \times BM < Bi <= BM$

$$Pi = 46 + \frac{(Bi - 0{,}8 \times BM)}{0{,}2 \times BM}$$

Baldin eta $BM < Bi <= (BM + Bmax) / 2$

$$Pi = 47 + \frac{(Bi - BM)}{(Bmax - BM)} \times 2$$

Baldin eta $(BM + Bmax) / 2 < Bi <= Bmax$

$$Pi = 48 + \frac{(2 \times Bi - BM - Bmax)}{(Bmax - BM)} \times 2$$

BALIO-JUDIZIOEN ARABERAKO IRIZPIDEAK 50 PUNTU

1.-Exekuzioaren memoria teknikoa eta metodologia (gehienez 30 puntu)

- Lanen programazioa: Jardueren iraupen justifikatua, koherentzia jardueren banaketa sekuentzialean eta lortutako xehetasun-garapen maila. **(gehienez ere 15 puntu)**
- Ibilbideen deskribapena eta ezagutza, eta ordutegiak egokitzea, denbora eta dirua aurrezteko **(gehienez ere 10 puntu).**
- Proposatutako zerbitzuaren egokitasuna. Antolaketa eta erantzuteko denborak. Larrialdietarako prestasuna. **(gehienez ere 5 puntu).**

Kontraturako jarritako bitarteko teknikoak (ibilgailuak) (gehienez 15 puntu)

- Kontraturako jarritako ibilgailuen kopurua eta haien modernizazio-maila: **gehienez ere 5 puntu**.
- Eskatutako eserleku-kopurua (5, gidariarena barne) gainditzen duten ibilgailuak jartzea: **gehienez ere 5 puntu**.
- Kontraturako jarritako langileen kopurua (2 baino gehiago): **gehienez ere 5 puntu**.

Ingurumen-irizpideak (gehienez ere 5 puntu)

- Ingurumen-bereizgarriak/-eranskailuak izatea **(gehienez ere 2,5 puntu)**

Trafikoko Zuzendaritza Nagusiak ingurumen-kutsaduraren mailaren arabera bere Ibilgailuen Erregistroan sailkatutako ibilgailuei ematen dizkien ingurumen-bereizgarriak/-eranskailuak dituzten ibilgailuak.

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

- Ingurumena kudeatzeko sistemak **(gehienez ere 2,5 puntu)**

Zerbitzua ematean ingurumena babesteko hartuko diren neurrien deskribapena: energia-kontsumo txikiagoa eta gas-isuriak murrizteko erabilitako sistemak.

2.- Berdinketak hausteko irizpideak:
Eskaintzen arteko berdinketak hausteko ordena honetan aplikatuko dira gizarte-irizpideak, zehazki, eskaintzak egiteko epean indarrean daudenak:
a) Enpresetako plantilletan desgaitasuna duten edo gizarte-bazterketan dauden langileen ehuneko handiena. Berdinketa egonez gero, desgaitasuna duten plantillako langile finkoen kopurua edo gizarte-bazterketan daudenena lehenetsiko da.
b) Enpresa bakoitzaren plantillako aldi baterako kontratuen ehuneko txikiena.
c) Enpresako langileen artean emakume enplegatuen ehuneko handiagoa izatea.
d) Zozketa, aurreko irizpideak aplikatuta berdinketa hautsi ez bada.

3.- Ohi baino txikiagoak diren eskaintzak kontuan hartzeko irizpideak:
Eskaintza bat ohi baino txikiagoa izango da kasu hauetakoren bat betetzen denean:

- Lizitatzaile bakarra dagoenean eta lizitazioaren oinarrizko aurrekontua baino 25 ehuneko-puntu txikiago denean.
- Bi lizitatzaile izanik, beste eskaintzaren aldean 20 ehuneko-puntu txikiagoa denean.
- Hiru lizitatzaile daudenean, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoarekiko 10 ehuneko-puntu baino gehiagotan txikiagoak direnak. Hala eta guztiz ere, batezbestekoa kalkulatzeko eskaintzarik garestiena alde batera utziko da, batezbestekoa baino 10 ehuneko-puntu handiagoa bada eta bakar-bakarrik ausarkeria-atalase berria ezartzeko ondorioetarako. Inolaz ere ez dio eragingo ezarritako sailkapen-ordenari. Nolanahi ere, neurriz kanpokotzat joko da aldea 25 ehuneko-puntu baino handiagoa bada.
- Lau lizitatzaile edo gehiago daudenean, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoarekiko 10 ehuneko-puntu baino txikiagoak direnak. Dena den, horien artean batezbestekoa baino 10 ehuneko-puntu handiagoak diren eskaintzak badaude, batezbesteko bat kalkulatuko da, bakarrik ustezko horretan ez dauden eskaintzekin. Kalkulu horren xede bakarra izango da ausarkeria-atalase berri bat ezartzea, eta inolaz ere ez dio eragingo ezarritako sailkapen-ordenari. Edonola ere, gainerako eskaintzen kopurua hirutik beherakoa bada, batez besteko berria hiru eskaintza merkeenak erabiliz kalkulatuko da.

Talde berekoak diren enpresek eskaintzak egin dituztenean, ustezko anormaltasuna dakarten eskaintzak identifikatzeko araubidea aplikatzeko, txikiena hartuko da kontuan, aintzat hartu gabe eskaintza bakarka egin duten edo taldearekin zerikusirik ez duen beste enpresa batekin edo batzuekin batera, haiekin aldi baterako enpresa-elkarte baten bidez egin badute.

4.- Lizitatzaileak hautaketa-prozesuan jarraitzeko beharrezko gutxieneko atalasea:
Baztertzeko arrazoia izango da eskaintzaren balorazio teknikoan **25 puntu** gutxienez ez lortzea.

L.- KONTRATUA BETETZEKO BALDINTZA BEREZIAK

Preskripzio tekniko partikularren pleguan adierazitakoak

M.- ZEHAPEN ESPEZIFIKOAK

Preskripzio tekniko partikularren pleguan adierazitako kasuak eta ekintzak.

N.- ADJUDIKAZIODUNAK AURKEZTU BEHARREKO ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA

Ziurtagiria, egiaztatzen duena arrisku profesionalengatiko erantzukizun-asegurua baduela

Ñ.- KONTRATUA ALDATZEA
Ez da aplikatu behar.

O.- AZPIKONTRATATZEKO AUKERA
Bai

P.- SUBROGAZIOA
Ez

Q.- ERREKURTSO BEREZIA
☒ BAI ☐ EZ

KONTRATUAREN IRAUNALDIAN BETETZEKO BETEKIZUNAK

- Eranskina: Datu pertsonalen babesa. Enpresa adjudikaziodunak datu pertsonalen tratamenduari buruzko klausulak eta zinpeko adierazpena sinatu beharko ditu.

- Enpresa adjudikaziodunak zerbitzuaren kalitatea eta segurtasuna bermatu beharko ditu kontratuaren indarraldi osoan, baldintza tekniko berezien pleguko "Zerbitzuaren kalitatea eta segurtasuna" puntuan adierazitakoa zorrotz betez.

- Ibilgailuek, nolanahi ere, plegu teknikoetan ezarritako entrega- eta bilketa-ordutegiak bete beharko dituzte.

- Ibilgailuaren matxurak edo gidariaren ondoezak zerbitzua garaiz eta behar bezala ematea eragozten badu, enpresa adjudikaziodunak bere kontura eman beharko du zerbitzua, ohiko bitartekoen kalitate berekoak edo handiagokoak erabilita.

- Enpresa adjudikaziodunak, ahal den neurrian, Partzuergoak eskatutako ezohiko zerbitzuak eman beharko ditu. Zerbitzu horiek ordaintzeko, dagozkien prezio kontrajarriak ezarriko dira.

- Adjudikaziodunak zorrotz bete beharko du datu pertsonalak babesteko indarreko araudia, eta ez du baimenik izango datu horiek kontratuaren gauzatzearekin zerikusirik ez duten hirugarrenei lagatzeko. Halaber, tratamendu-eragilea izango da, eta zehatz-mehatz bete beharko ditu indarreko araudiak eginkizun horri lotzen dizkion zaintza-betebeharrak eta gainerakoak.

Partzuergoak eskubidea izango du adjudikaziodunari ibilgailua edo gidaria aldatzeko eskatzeko, bide-segurtasuneko arrazoi justifikatuengatik. Adjudikaziodunak ez du horregatik konpentsazio ekonomikorik jasotzeko eskubiderik izango. Adjudikaziodunak arduraz bete beharko du eskaera, formalki egin ondoren.